



EBAZPENA, 2029KO URTARRILAREN 29KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2024/2025EKO LEKUALDATZE LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2024ko azaroaren 4a).

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko Maisu-maistren kidegoko langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2024ko azaroaren 4ko honako agindu hau aldatzen duena: Agindua, 2024ko urriaren 25ekoa Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren edo parte-hartzearen atal jakin batekoa partehartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiakideek konpon ditzaketan akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitaratzea.

Laugarrena.- Erreklamazio-epea irekitzea 2025eko urtarrilaren 30etik otsailaren 12ra, biak barne. Epe berean zuzendu ahal izango dira akats formalak dituzten eskabideak eta merezimenduak.

Bostgarrena.- Erreklamazioak/zuzenketak Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus>.. NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu).

**UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2029ko urtarrilak 29a